**EBAZPENA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile okupatuei zuzenduta dagoen 2020- 2022 aldirako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko deialdia ebazten duena.**

**RESOLUCIÓN de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se resuelve la convocatoria para financiar la oferta formativa para los años 2020-2022, dirigida prioritariamente a personas trabajadoras ocupadas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

Ikusirik lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile okupatuei zuzenduta dagoen 2020-2022 aldiko prestakuntza-eskaintza finantzatzeko diru-laguntzen deialdiaren babespean aurkeztutako eskaerak, eta oinarri harturik honako aurrekari hauek

Vistas las solicitudes presentadas al amparo de la convocatoria de subvenciones para financiar la oferta formativa 2020-2022 dirigida prioritariamente a personas trabajadoras ocupadas de la Comunidad Autónoma del País Vasco en base a los siguientes

## AURREKARIAK

**Lehena.-** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2020ko ekainaren 23ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile okupatuei zuzenduta dagoen 2020-2022 aldiko prestakuntza-eskaintza finantzatzeko diru-laguntzen deialdia onartu zuen, eta 2020ko ekainaren 30eko EHAAn argitaratu zen Lanbideko zuzendari nagusiaren

**Bigarrena.-** Eskabideak aurkezteko epea 2020ko uztailaren 30an amaitu zen.

**Hirugarrena.-** 2020ko urriaren 20ean, Behin Behineko Ebazpenaren proposamena argitaratu zen Lanbideren webgunean , eta erakunde interesdunei 10 egun balioduneko epea eman zitzaien bidezkotzat hartzen zituzten alegazioak aurkezteko edo eskaeran atzera egiteko, deialdiaren 7.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

**Laugarrena.-** Entzunaldi-epea amaituta eta aurkeztutako alegazioak eta/edo atzera egiteak aztertuta, ebaluazio-batzordeak behin betiko ebazpen-proposamena egin du, eta Lanbideko zuzendari nagusiari helarazi dio, 7.6 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

## HECHOS

**Primero. -** El Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por Acuerdo adoptado en su sesión de 23 de junio de 2020, aprobó la convocatoria de subvenciones para financiar la oferta formativa 2020-2022 dirigida prioritariamente a personas trabajadoras ocupadas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, publicada en el BOPV de 30 de junio de 2020 mediante Resolución del Director General de Lanbide.

**Segundo. -** El plazo de presentación de solicitudes finalizó el día 30 de julio de 2020.

**Tercero.-** El 20 de octubre de 2020 se publicó en la web de Lanbide la propuesta de Resolución Provisional, concediendo a las entidades interesadas un plazo de 10 días hábiles para presentar cuantas alegaciones considerasen oportunas o desistir de su solicitud, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.5 de la convocatoria.

**Cuarto.-** Finalizado el plazo de audiencia concedido y una vez estudiadas las alegaciones y/o desistimientos presentados, la comisión evaluadora ha elaborado la propuesta de resolución definitiva, de la que ha dado traslado a la Directora General de Lanbide, de conformidad con lo dispuesto en el art. 7.6 de la convocatoria.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehena.**- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua da honako ebazpen hau egiteko organo eskuduna, goian adierazitako laguntzen deialdiaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Bigarrena.**- Espediente honen ebazpenean deialdiaren 7. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraitu zaio, eta erabakia hartzeko eskumena duen organoak bere gain hartu du ebaluazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena,, betiere deialdiaren 5., 8., eta 9. artikuluetan aurreikusten diren laguntzak zehazteko arauen arabera eta eskabideak baloratzeko irizpideen arabera.

Horrenbestez

## EBATZI DUT

**Lehenik.**- I. eranskinean adierazitako entitateei egikaritu behar dituzten prestakuntza-planak finantzatzeko diru-laguntzak ematea, zehaztuta dauden prestakuntza-ekintzak egin ditzaten.

Guztizko zenbatekoa 29.796.070,57 euro da.

Prestakuntza-erakunde onuradunek 10 eguneko epea izango dute, ebazpen hau Lanbideren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, prestakuntza-plan osoak emandako diru-laguntza onartzeko. Epe hori amaitu eta diru-laguntza onartu ezean, uko egiten diotela ulertuko da.

**Bigarren.**- II. eranskinean jasotako eskaerak ezestea, aurrekontu-kredituri k ezagatik.

Eranskin horretan, diruz laguntzeko proposatzen diren eta aurrekontu-kredituri k ezagatik ezesteko proposatzen diren prestakuntza- ekintza guztiak agertzen dira, diru-laguntzen ildoen arabera taldekatuta eta

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Primero.** - La Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo es el órgano competente para dictar la presente Resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 7.1 de la convocatoria de ayudas arriba referenciada.

**Segundo.** - En la resolución de este expediente se ha seguido el procedimiento previsto en el artículo 7 de la convocatoria, asumiendo el órgano competente para adoptar la decisión la propuesta de resolución elaborada por la comisión evaluadora, en base a los criterios de valoración de las solicitudes y a las normas de determinación de las ayudas a conceder previstos en los artículos 5, 8 y 9 de la convocatoria.

Por todo ello

## RESUELVO

**Primero.** – Conceder, a las entidades que se recogen en el anexo I las subvenciones destinadas a la financiación de los planes de formación a ejecutar por cada una de ellas, para el desarrollo de las acciones de formación que se detallan.

La cuantía total asciende a 29.796.070,57 euros.

Las entidades de formación beneficiarias dispondrán de un plazo de 10 días, contados a partir del siguiente al de la publicación de esta Resolución en la página web de Lanbide para aceptar la subvención concedida por la totalidad del Plan de formación, transcurrido el cual sin haber aceptado, se entenderá que renuncian a la subvención.

**Segundo.** – Desestimar las solicitudes que se recogen en el anexo II por falta de crédito presupuestario.

En este anexo aparecen las acciones formativas de todos los planes de formación que se propone subvencionar y las que se propone desestimar por falta de crédito presupuestario, agrupadas por líneas

balorazioaren ondoriozko lehentasunaren arabera ordenatuta.

**Hirugarren.-** III. eranskinean jasotako eskaerak ezestea, deialdian aurreikusitako betekizunak betetzen ez direlako.

**Laugarren.-** Emandako diru-laguntzak deialdiaren 12. artikuluan aurreikusitako moduan eta baldintzetan ordainduko dira, honela:

a) Lehenengo ordainketan, prestakuntza-planari dagokion diru-laguntzaren % 24 ordainduko da, 2020ko ordainketa-kredituaren kargura, lehenengo prestakuntza-ekintzaren hasiera jakinarazitako unean.

b) Bigarren ordainketan, prestakuntza-planari dagokion diru-laguntzaren % 21 ordainduko da, 2021ko konpromiso-kredituaren kargura, betiere prestakuntza-planaren baitan dauden prestakun- tza ekintzen % 40, gutxienez, hasi badute.

c) Hirugarren ordainketan, prestakuntza-planari dagokion diru-laguntzaren % 31 ordainduko da, 2021ko konpromiso-kredituaren kargura, betiere prestakuntza-planaren barruan dauden presta- kuntza ekintzen % 70, gutxienez, hasi badute.

d) Laugarren ordainketa bat, 2022ko konpromiso-kredituaren kargura, prestakuntza-planari dagokion diru-laguntzaren gainerakoagatik, prestakuntza-ekintza guztiak amaitzean, justifikatu ondoren.

Ordainketa bakoitzaren aurretik, onuradunak egunean izan beharko ditu Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko.

Baldin eta aurreratutako ordainketen zenbatekoa, banaka hartuta edo aurreko ordainketen zenbatekoei gehituta, 180.303,63 eurotik gorakoa bada, diru-laguntzaren erakunde onuradunak, dagokion ordainketa egin aurretik, bermea, abala edo fidantza eratu izana egiaztatzen duen frogagiria aurkeztu beharko du LANBIDEn, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintzan, zenbateko horren

subvencionales, y ordenadas según la prelación resultante de la valoración.

**Tercero. -** Desestimar las solicitudes que se recogen en el anexo III por incumplimiento de los requisitos previstos en la convocatoria.

**Cuarto.-** Las subvenciones concedidas serán abonadas en los términos y condiciones previstos en el artículo 12 de la convocatoria, de la siguiente manera:

a) Un primer pago con cargo al crédito de pago 2020, del 24% del total de la subvención correspondiente al Plan de Formación, al momento de la comunicación de inicio de la primera acción formativa.

b) Un segundo pago, con cargo al crédito de compromiso 2021, por el 21% del total de la subvención correspondiente al Plan de Formación, una vez hayan iniciado, al menos, el 40 por ciento de las acciones formativas que componen el Plan de Formación.

c) Un tercer pago, con cargo al crédito de compromiso 2021, del 31% del total de la subvención correspondiente al Plan de Formación, una vez hayan iniciado, al menos, el 70 por ciento de las acciones formativas que componen el Plan de Formación.

d) Un cuarto pago, con cargo al crédito de compromiso 2022, por el resto de la subvención correspondiente al Plan de Formación, a la finalización de todas las acciones formativas, una vez justificadas.

Con anterioridad a cada pago, el beneficiario deberá estar al corriente del cumplimiento de sus obligaciones frente a la Hacienda y a la Seguridad Social.

En el caso de que el importe de los pagos anticipados, tomados de forma individual o sumados al/los importe/s del/los pago/s anterior/es, supere la cuantía de 180.303,63 euros, la entidad beneficiaria de la subvención deberá presentar en Lanbide, con carácter previo al pago correspondiente, el Resguardo acreditativo de la constitución de garantía, aval o fianza en la Tesorería de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que responda de la

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

erantzule izan dadin. Abal-eredua Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuak emango du

**Bosgarren. -** Ebazpen hau jakinaraztea, berori argitara emanda Lanbideren web-orrian www.lanbide.euskadi.eus. Interesdunei jakinaraziko zaie ebazpenak amaiera ematen diola administrazio-bideari eta haren aurka berraztertzeko errekurtsoa jar dakiokeela Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, edo zuzenean jar dakiokeela administrazioarekiko auzi errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 15a

cantidad anticipada. El modelo de aval le será facilitado por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

**Quinto.-** Notificar esta Resolución mediante su publicación en la página web de Lanbide www.lanbide.euskadi.eus haciéndoles saber a los interesados que la misma pone fin a la vía administrativa y que contra ella cabe interponer recurso de reposición ante la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación o directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso- Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2020

**MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE**
**Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusia**
**Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo**